

Katalogoa erakundearen web-orritik kontsulta daiteke

Kutxabankek distantzia luzeko bidaiak berriak sartu ditu 60 urtez gorakoentzako eskaintzan

- **Interesdunek martxoaren 7tik aurrera eman ahal izango dute izena Kutxabanken webgunean**

2023ko martxoaren 6an. Azul Marino Bidaiak-ek Kutxabankeko 60 urtetik gorako bezeroentzako, % 100 Nagusi, bidaiak eta txangoak aurkeztu ditu: **177 irteera 56 helmugatara**, eta **9 txango** 3 helmugatara. Guztira **6.400 postu baino gehiago** daude eskuragarri distantzia luze eta ertaineko txango eta bidaiak horietarako.

Katalogoaren bertsio digitala jada eskuragarri dago Erakundearen negozioko web-orrian, eta bere bezeroek ohiko komunikazio-kanalaren (newsletter edo posta arruntaren) bidez jasoko dute informazioa. Gainera, aste honetan zehar, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako bulegoek katalogoa eskura izango dute, paperezko bertsioan.

Bidaia-programa hau **oso estimatua** da kalitatearen eta zerbitzuaren arteko erlazio ona duelako, eta oso balioetsitako zerbitzu osagarriak eskaintzen dituelako, hala nola, gidari laguntzaileak, ibilbide eskusiboak, helmugako laguntza, egiaztatutako zerbitzuak, edo aurten aseguruaren estaldurak handiagotzea, laguntza eta ezeztatzeko aukera gehiagorekin.

Ibilbide guztien antolaketa teknikoa Azul Marino bidaiak-ek egin du, Iberostar taldeko bidaiadibisioa den World2Meet-en (W2M) parte denak. Euskal tour operadore ospetsu hau liderra da bere negozio-segmentuan, 40 urteko esperientzia du distantzia luzeko bidaietan, eta Espainiako estatu osoko turismo-operadore nagusietako bat da.

Klasiko handiak eta berrikuntzaren bat

Aurtengo programazioak ohiko bidaiak mantentzen ditu, hala nola Fiordoak, Turkia edo Kroazia, eta ibilbide berriak dituzten bidaiak Iparraldeko Lakuetan Italian edo Albanian eta Mazedonian. Gainera, beste berrikuntza batzuk ere baditu, hala nola ibai-bidaia Danubion barrena uretaratu berri den itsasontzi batean, edo Gasteiztik zuzenean Pugliara doan bidaia.

Distantzia luzean, berrikuntza gisa, ibilaldi oso bat eskaintzen da Bangkok, Vietnam eta Kanputxea ikusteko, eta Japoniara itzultzeko aukera ere bai, bi urtez turismoari erabat itxita egon ondoren.

Halaber, ohikoa den bezala, **programazio lasaiagoa** ere eskaintzen da kostalde, uharte eta bainuetxeetan, baita ihesaldiak, bidaia aktiboak edo egun bakarreko txangoak ere.

Izena emateko epea **martxoaren 7an** (asteartea) hasiko da, **9:30ean**, eta Internet bidez formalizatu ahal izango da, Kutxabanken web-orrian adinekoei zuzendutako gunetik. Azul Marino Bidaiak, bestalde, bere web-atarian, bere bulegoetan eta 946 620 222 telefono-zenbakian ere eskaintzen du izena emateko aukera.

Baldintza berezietako bidaia-programaz gozatzeko, ezinbestekoa da pentsioa Kutxabanken helbideratuta izatea eta, gutxienez, Erakundearen txartel bat izatea, baita 60 urtetik gorakoa izatea ere.

Adinekoek eurentzat bereziki diseinatutako produktu eta zerbitzu finantzario eta ez-finantzarioen katalogo zabala dute eskura Kutxabanken. Bidaia eskusiboen programa horretaz gain, talde honetako bezeroek hainbat aukera izango dituzte: kontuetan ezaugarri eta hobari bereziak, testamentuak egiteko eta herentzia banatzeko laguntzak, deskontu eta zozketa eskusiboak eta berariaz beraiantzat diseinatutako beste finantza-produktu eta zerbitzu batzuk. Kutxabankentzat **talde estrategikoa** da, bai bere bezeroen artean duen garrantziagatik (% 30 kolektibo horretakoak dira), bai Bankuari ematen dizkion negozio-zifrengatik.